

3183.-

Bilbon 1958, abenduaren 13 goizean Diputazioaren Bibliotekan asi ziran Euskaltzaindiak antolatutako itzaldiok. Goizeko 11-etan eman zitzaion asiera. Maipuruan zeuden: Severo de Altube, Nazario de Oleaga, Juan Gorostiaga, Aita Luis Villasante, Aita Mugica, Aita Onaindia, Jaureguibery andrea, eta Irigoyen sekretario bezala. Geroago agertu zan Luis Michelena. Gero Arruza ere izan zan. Lendabizi Irigoyen-ek egin zien agurra ta ongi etorria batzarkide guziai:

Gorostiaga jaunari ematen zaio itza.

Egun on jaun andrak :

Nire lenengo berbak agur egiteko dira. Agur maipuruan dagozan jauneri, agur etorri zarien guztiori, agur ezin etorri izanik agurra eta lanen bat bialdu deuskueneri, eta eskerrak Bizkaiko Diputaziñoari eta biblioteka onetako zuzendariari laguntasun benetako onegaitik. Eskerrik asko.

Orain urte bi Arantzazu-n izan genduzan batzar bizi eta eragille areik gogoan arturik Euskaltzaindiak barriro be egitea erabagi dau euskal estudioen onerako izango direalakoan eta euskal soloa geroago eta argi andiagoagaz landuteko balioko dabelakoan. Eta orretarako Bilbo uri andi au aukeratu dau, espirituko gaietan abiada andi baten bearrean dagoen uri andi au. Apurtxo bat berandu, ia neguaren biotzean gertau dira, baiña alan da guztiz be uste dot gure zaletasun sendo, gogor, eta beroarentzat ezala oraindiño naikoa otzegi.

Gaia, lexikografia, lexikologia eta literatura mueten legerik nagusienak imini da, gaur eguneko gai bizia eta argitu bearrekoa. Arantzazun be urten eban gai onek zelanbait, baiña orduan ezan erabagirik artu. An, egokienea egoan guztietan gaiak euskeraz erabilteko eskatu zan, geroago Euskaltzaindiak bear direan erabagiak artu aal izan eizan itzen kontuan. Urte bi igaro dira ordutik ona eta badirudi zerbait argitu bearra

dagoela. Asko ta asko zimentarri batzuen begira daukaguz trankil asko bide bat artzeko. Euskaltzaindiak egiñik baleuko sekula egin bako euskal iztegia an egongo litzakez dotoretzat eta erabilgarritzat artutako berba guztiak bakoxta bere esan-gura zeatzakaz. Ori eztagoen ezker ez ete da komeni zimentarri batzuk imintea, nozbait euskal iztegi ori egingo balitz zelango arrazoiak egongo litzakezan itzak an sartzeko edo ez sartzeko esanik? Gai ori Mitxelena jaunak artu dau zuzenean bere lepoan, gure artean arazo orretan gizonik argiena dogunak, eta euskalduntasunari Euskalerritik kanpo be ohore andia egiten deutzanak ezereen duda barik.

Batzar oneitan, itzaldi bakoxtaren ostean, eskatuten dauen guztiari berbea emongo jako izlariari itaunak egin deiozan eta arek erantzun deion argitasunak emonik. Eta norbaitek zer esanik baleuko gaiari ez jagokona iminiko da aldi berezi bat esan bear guztiak adierazo daizan.

Ia bada, emendik, guztion artean etorkizunerako argibiderik agertuten dan, jokabide sendo bat, zimentarri benetako bat, gauza utsetan bat ezipagatoz bere.

Olan izan bedi.

A. Irigoyen.

51187.- EUSKERA BAT EDO UNIFICACION DEL EUSKERA

Adiskide eta gogaide :

Gure euskera, euskaldun guztientzat edo beiñik-bein euskal-idazle guztientzat bat-bat egitea, gai onek ekarten deutzan gogoetak orain zuen aurrean, zuen oneritiziz laburzki azalduko dodaz.

Auzi onetan, iñori etxako, etzaio iñori beartzen bere aburua utzi eta niregaz bat mun egin daien.

Idorra litzake jakinduria, erriak ere ez luke gauza andirik irabaziko, usteak eta eztabaidak, bata bestearen aurrean, ollar-